

## GAKO EKONOMIKOAK

- Moderazioa datu makroekonomikoetan, batez ere Europan.
- Itxiera mistoak munduko burtsa nagusietan.
- Igoera nabarmena periferiako herrialdeen arrisku-primetan eta Alemania eta Ameriketako bonuan, babes-aktibo izan baitira Europako ziurgabetasun politikoaren aurrean.
- Euroak atzera egiten segitzen du dolarrarekiko.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

"Maiatzean saldu eta alden du" merkatuetako mantra zaharra berriro ere bete egin dela ematen du. Hilaren hasieran apirileko itxierak utzitako lortatz positiboari jarraitu zitzaion arren, hilak aurrera egin ahala ezegonkortasuna nagusituz joan da merkatuetan. Europan, periferian kontzentratu da fokua. Alde batetik, Italian, hauteskundeak aurreratu behar izateak gobernu euroeszeptiko bat ekartzeko probabilitateak pisua izan du merkatuetan hilaren bigarren zatian. Hala ere, azkenean panorama politikoa argituz joan zen M5S eta Iparreko Ligak proposatutako zerrenda berria ezagutzera eman zenean eta Mattarella-k onspena eman zionean, Giuseppe Conte lehen ministro izendatzeko eta Savona betatua atzerri-ministro karguan jartzeko. Italiako egoera politikoari Espainiako ziurgabetasuna gehitu zitzaion, PSOEek Rajoyren gobernuaren kontrako zentsura-mozioa aurkeztu zuenean. Azkenean, mozioa onartu egin zuten eta Pedro Sanchez bilakatu zen gobernuko presidentea. Garai berean, Atlantikoaren beste aldean, gerra komertziala berpiztu da, Europar Batasuneko altzairu eta aluminioaren inportazioei arantzelak ezarri zaizkienean. Baina, bestalde, puntu positibo gisa, ematen du Estatu Batuen eta Txinaren arteko harremana "stand by" geratu dela, bi herrialdeek arantzel-mehatxuak alde batera uztea adostu dutenean akordio komertzial zabalago bat lantzen duten bitartean. Arrisku politikoa alde batera utzita, bigarren planoan, ezagutu dugu Europan lehenengo hiruhileko BPGa espero zena baino gutxiago hazi dela, eta inflazioak, bestalde, gorantz eman duela ezustekoa. Estatu Batuetan, enplegu-sortzearen datua espero zena baino handiagoa izan da eta langabezia-tasa aken 18 urteetako minimora jaitsi da. Azkenik, aipatu behar dira Argentinak Nazioarteko Diru Funtzari eskatutako laguntza, eta liberean balio-galtzea BOEK tasa-igoera atzeratzea erabaki ostean.

## ERRENTA ALDAKORRA

Arrisku politikoa atzeko planoan dela, hilabete gorabeheratsua izan da maiatza burtsan. Lehenengo egunetako tonu positiboa errusiar mendi bilakatuz joan zen, Italia eta Espainiako gertakari politikoaren harira eta Estatu Batuen eta Europar Batasunaren arteko gerra komertzialean kapitulu berri bati hasiera eman ahala. Horrela, bada, Europan, merkatu nagusiek gorrian itxi dute hila; bereziki nabarmentzekoa Milango burtsaren %8,86ko beherakada, hileko emaitza okerrean 2016tik (Brexit), edo Ibex35aren %5,16ko atzerakada. Kontrako aldean, Ameriketako burtsa nagusiek positiboan amaitu dute hila (S&P500 +%2,16; DJ +%1,05), guztien artean nabarmenena Nasdaq indizearen %5etik gorako igoera. Herrialde emergenteetako eta asiarretako merkatuek beherakada txikiakin itxi dute hila, azken horiek AEB eta Ipar Korearen arteko goi-bilerari begira.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2018ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.465,5	EUR	%-5,76
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.406,65	EUR	%-2,78
S&P-500	AEB	2.705,27	USD	%1,18
DOW JONES	AEB	24.415,84	USD	%-1,23
NASDAQ 100	AEB	6.967,73	USD	%8,93
NIKKEI-225	JAPONIA	22.201,82	JPY	%-2,47
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.120,71	USD	%-3,26
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.092,923	EUR	%-0,50

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOA

Italia eta Espainiako ziurgabetasun politikoak hegakortasun handia ekarri zion zor subiranoari, arrisku-primaren igoera handia, eta Alemaniako bonua izan da babes-aktiboarena egin duena ziurgabetasun handieneko momentuetan. Italiako gobernuaren eratu ostean, eta Espainiako zentsura-mozioaren emaitza ezagututakoan, erlaxatuz joan da egoera, baina, azkenean, balio garbian, Alemaniako bonuak 22 op beherago amaitu du, %0,34an, eta Espainiako hamar urterako tasa %1,28tik %1,5era pasatu da. Estatu Batuetan, Ameriketako bonuak, %3,10etik gorako maila iritsi eta gero, %2,86an amaitu du, apirileko itxiera baino 9 op beherago. Kreditu-merkatuan ere hegakortasun handia izan da, baina azkenean kreditua zabaldua amaitu da hila.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2018ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,32	0,01
	6 HIL.	-0,27	0,00
	12 HIL.	-0,18	0,00
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,66	-0,03
	5 URTE	-0,27	-0,07
	10 URTE	0,34	-0,09
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	0,02	0,37
	5 URTE	0,46	0,07
	10 URTE	1,50	-0,06

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK

Eurogunera ziurgabetasun politikoa itzultzeak, Italian batez ere, eta datu makroekonomikoak pataxeagoak izateak faktura pasatu dio euroari, eta 1,17 dolar inguruan amaitu du hila, apirilaren amaierako 1,208 dolarrak baino %3,2 beherago, Trump hautatu zutenetik dolarrarekiko izan duen balio apalenean.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg